

## GORBATA DARAMATEN LAPURRAK

ADEGI-k Metaleko Hitzarmeneko negoziazioan mahairatu dituen proposamenek egun indarrean dagoen Hitzarmeneko egitura goitik behera eraldatzen dute eta, era berean, aspaldian gipuzkoako langileen eskubideen aurkako erasoaldi bortitzena suposatzen dute.

### ENPRESABURUEK LAN HITZARMENA LAPURTU NAHI DIGUTE

**1) INDARRALDIA ETA IRAUPENA.** ADEGI-k Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenean ultraaktibitatea desagertarazi nahi du. Honek esan nahi du, Hitzarmeneko iraupena amaitu eta gero, azken 30 urteetan gipuzkoako langileok borroka gogorrek medio irabazitako eskubide guztiak galdu egingo ditugula. Beraz, aurrerantzean, metaleko langileok negoziazio guztiak hutsetik abiaraziko ditugu; izan ere, egun batetik bestera, asko kostata irabazitako eskubide guztiak galduko baititugu. ADEGI-k inposatu nahi duenaren kontra, egun indarrean dagoen Metaleko Hitzarmena ultraaktiboa da, eta, ondorioz, aurrez negoziatutako edukiak bermaturik daude.

**2) LAN-JARDUNALDIA.** ADEGI-k urteko lanorduak 1.755 izatea nahi du, beraz, gaur egun baino 58 ordu gehiago lan egitea nahi du (1.697 lanordu jasotzen ditu egungo Hitzarmenak). Hortaz aparte, ADEGI-k ogitartekoa jateko 15 minutuko atsedendaldia lanaldi bezala ez kontsideratzea nahi du. Hau da, azken finean, enpresaburuak urte bakoitzeko 120 ordu gehiago lan egitea eskatzen ari dira. Hau da, enpresaburuak egun aisialdirako diren hiru aste lapurtu nahi dizkigute. Eta horrelakoak eskatzeko lotsa izpirik ere ez dute.

**3) OPORRAK ETA LAN-EGUTEGIAK.** ADEGI-k Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko 8. artikulua aldatu nahi du. Izan ere, 8. artikulua honek enpresaburuak justifikaziorik gabe lan-egutegiak aldatzeko ahalmena mugatzen du, eta, justu horregatik, ez da ADEGI-ren gustukoa. Beraz, enpresaburuak gura dute langile guztiok beraien desiotara moldatzea. Ondorioz, aurrerantzean lan egutegirik gabe konpondu beharko gara; ugazabak esaten duenean lanera (edo etxera) eta kito.

Oporrekin ere antzerako zerbait planteatzen du ADEGI-k. Izan ere, enpresaburuak Metaleko Hitzarmeneko 10. artikulua aldatu nahi dute eta, ondorioz, aurrerantzean enpresek langileen opor egunak aldatzeko eskumen osoa izango dute. Hau horrela izanik, etorkizunean akabo oporretarako plan guztiak, enpresaburuak edozein momentutan opor egunak aldatzeko erabakia hartu baitezake.

**4) FLEXIBILITATE OSOA.** ADEGI-k Hitzarmen Probintzialeko 9. artikulua ere aldatu nahi du, hain zuzen 65

ordu erabilgarriei buruz arautzen duena. Orainarte, enpresek 65 ordu hauek erabili ahal izateko baldintza batzuk bete behar zituzten (aldi baterako kontratuen gehienezko kopurua plantillaren %10etik beherakoa izatea, adibidez). Haatik, ADEGI-k proposatzen duenari jarraiki, Hitzarmen berriari erreparatu, enpresek erabili ahal izango dituzten orduak 65etik 120 ordura pasatzen dira, eta, gainera, ordu horiek erabiltzeko muga guztiak desagertzen dira. Honek esan nahi du aurrera begira enpresaburuak lan zama igo edo jeisten den bakoitzeko beraien langileak etxera bidali edo-eta, alderantziz, lan ordu gehiago sartzeko agindua emateko eskumen osoa izango dutela. Flexibilitate parametro hauekin, langileok telefonoari itsatsita bizi beharko gara, noiz lanera joan eta noiz ez jakin nahi badugu, zein errelebotan tokatzen zaigun edo-eta zenbat orduz lanean arituko garen azkar-azkar jakin eta lehenbailehen prest egon nahi badugu.

**5) SOLDATAK IZOZTU ETA AINTZINATASUNA DESAGERTARAZI.** ADEGI-k, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmen berri

### APEZETXEA ETA ZUBIAURRE, ADEGI-KO ARGITSUAK, BULEGOAN BURUA NEKATZEN...

#### ESAN ETA IZAN

"Gaur egun, zenbait gauza iritzi publikoaren aurrean esatea ez da oso ondo ikusten: Kapitalismoak izen artistiko aski polita janzen du: merkatuko ekonomia; inperialismoari globalizazioa deritzo; ugazabak langilea kalteordain eta azalpenik gabe kaleratzeko eskubideari lan merkatuaren flexibilizazioa deitzen zaio; lapurrak familia onekoak direnean ez dira lapurrak, kleptomanoak baizik."





baterako egin duen planteamenduak, soldatak izoztea eta aintzinasun plusa desagertaraztea jasotzen du. Kontutan izanik aintzinasunak "bosturteko bakoitzeko lanbide kategoria bakoitzarentzako ezarritako alokairuaren %5a" suposatzen duela, ADEGI-k, azken finean, bosturteko bakoitzeko alokairuen gutxienez %5eko soldata jeitsiera bat planteatzen du aurrean (%10eko soldata jeitsiera 5 urte barru, %15eko soldata jeitsiera 10 urte barru, etabar). Hau da, ADEGI-k langileon patriketan sekulako lapurreta burutu nahi du.

**6) GAIXOTASUN LARRIAGATIK BAIMENA.** ADEGI-k gaur egun gaixotasun larriagatik edo ospitalizazioagatik den ordaindutako baimen hau, soilik 4-5 eguneko lagundutako ospitalizazioaren beharra dagoen kasuetara mugatu nahi du. Orain arte, langilearen senideak gaua ospitalean pasatu duela justifikatzea nahikoa zen ordaindutako baimena disfrutatzeke eskubidea izateko. Enpresaburuek eskatzen dutenaren arabera, aurrerantzean ordaindutako baimen hau hartu ahal izatea ia ezinezkoa izango litzateke, lagundutako ospitalizazio kasuak oso arraroak direlako.

**7) APARTEKO NEKEA, TOXIKOTASUNA ETA ARRISKUA DUTEN ZEREGINAK.** ADEGI-k aparteko nekea, toxikotasuna edo-eta arriskua duten zereginetan aritzeagatik egungo Metaleko Hitzarmenak jasotzen dituen haborokinak kentzeko erreztasun guztiak eskeini nahi dizkie enpresaburuei. Izatez, aurrera begira, enpresek ezaugarri hauek zituzten lanpostuen baldintzak hobetu dituztela esatea nahikoa izango da lanpostu horiekin erlasionaturiko haborokinak kendu ahal izateko. Egungo Metaleko Hitzarmenaren arabera, aldiz, Lan Ikuskaritzak egiaztatu behar du lanpostu horiek jada aparteko nekea ez dutela sortzen, ez direla toxikoak edo-eta arrisku gabekoak direla.

**8) ALDI BATERAKO LAN-ENPRESAK, OBRA EDO ZERBITZU KONTRATUAK, PRESTAKUNTZA KONTRATUAK, PRAKTIKA KONTRATUAK, ALDI BATERAKO KONTRATUAK.** Enpresaburuen plataformak egungo Gipuzkoako Metaleko Hitzar-

menak prekarietate ikur diren kontratu mota hauei guztiei ezartzen dizkien baldintzak desagertarazi nahi ditu. ADEGI, batez ere, aldi baterako kontratuak sustatzearen aldekoa da.

**9) LANEKO PORTAERA ARAUAK.** ADEGI-k laneko portaeren inguruko araudia gogortu nahi du. Horretarako, enpresaburuek Internet eta gainerako komunikabide elektronikoan erabilera, edo-eta lan esparruan tabakoa kontsumitzea bezalako joeraak, hutsegite larri gisa zigortu nahi dituzte. Hortaz aparte, aurrerantzean ordubete baino gehiagoko puntualitate hutsegiteak hutsegite oso larri gisa zigortuko dira. Eromena.



**10) ARRAZOI OBJEKTIBOEN ONDORIOZKO KALERATZEAK ETA ENPLEGUA ARAUPETZEKO ESPEDIENTEAK.** Gipuzkoako ugazabek egun indarrean dagoen Metaleko Hitzarmeneko 50. artikulua desagertarazi nahi dute; izan ere, 50. artikulua arabera, Gipuzkoako metalean kaleratze objektiboei dagokien

**Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko lorpen esanguratsuenak 80. hamarkadan irabazi genituen. Eta haiek ez ziren gaurkoak baino garai hobeak (80. hamarkadan krisiak gogor jo zuen). Hala ere, gure aurrekoek, aitzakirik gabe, mobilizatu behar zirela barneratu zuten. Horrela, borrokatuz, irabazi zituzten egungo metalgintzako langileok ditugun eskubide asko eta asko. Gure aurrekoek garai zail haietan borrokatzea tokatu zitzaion. Orain, 2010ean, guri dagokigu geurea defendatzea eta atzetik datozen belaunaldien lan baldintzak duintzea.**

**Gipuzkoako enpresa guztietako langileei eragiten digu ADEGI-k planteatzen dituen lan-eskubideen murrizketak. Beraz, metalgintzako langile guztiok (berdin dio Enpresa Ituna eduki edo ez) Hitzarmen duin baten alde mobilizatu behar gara. Izan ere, Enpresa Itunetan jasotzen ez den araudi guztia Hitzarmen Probintzialarekin erlasionatzen da; hots, ADEGI-k desagertarazi nahi duen Hitzarmen Probintzialarekin.**

kalteordaina lan egindako urte bakoitzeko 30 eguneko da, eta 45 eguneko erregulazio espedienteetan (18 hilabeteko mugariarekin). Haatik, ADEGI-k kaleratze objektibo hauek merkatu nahi ditu eta, beraz, bere planteamenduak aurrera egin ezker, etorkizuneko gipuzkoako ugazabek kaleratze hauek merke-merke burutuko dituzte: lan egindako urte bakoitzeko soilik 20 eguneko kalteordaina (12 hilabeteko mugariarekin) ordaindu beharko baitute.

**11) SINDIKATUA ENPRESAN.** ADEGI-k sindikatuen betebeharrak ahalik eta gehien oztopatu nahi ditu. Hori dela-eta berme

zein eskubide sindikaletan sekulako triskantza egin nahi du. Ildo honetan, enpresaburuek asanbladak lan-orduetan egitea debekatu nahi dituzte. Gainera, aurrerantzean, enpresaburuek ez diete langileen ordezkari enpresari buruzko inolako informaziorik emango, eta sindikatu-tako aholkulariek ere enpresetako ateak itxita izango dituzte. Greba eskubidea ere debekatu nahi du ADEGI-k, behintzat beraiek aldarrikatzen duten Metaleko Hitzarmen berria indarrean dagoen bitartean.

**12) ETABAR, ETABAR, ETABAR.** Eta horrela denbora luzez jarraitu genezake. Izan ere, ADEGI-k mahairatu dituen planteamenduek egun indarrean dagoen Gipuzkoako Metaleko Hitzarmeneko egitura goitik behera eraldatzen dute. ADEGI, azken finean, Hitzarmen berri bat aldarrikatzen ari baita, enpresaburu atzerakoiaren gustura diseinatutako Hitzarmena Probintziala, noski.

**GURE ESKUBIDEEN ALDE  
UGAZABEN HARROKERIAREN AURKA, GIPUZKOAKO METALA GREBAN  
MAIATZAK 28, EKAINAK 4, 10 ETA 11  
ETA MAIATZAK 14an, DONOSTIN MANIFESTAZIOA, 11:30 BOULEVARD-ean**

